

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak Hezkuntzan berrikuntza metodologikoa bultzatzea nabarmendu du ikasturte berriaren irekieran

Ekitaldia Tafallako Antso III.a Handia BHIIn izan da, 50 urte bete dituen ikastetxean

Ostirala, 2018.eko irailak 14

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek, 2018-2019 ikasturtea irekitzeko gaur goizean egindako ekitaldian, Nafarroako hezkuntza-sistemak ikasturte honetan eraldaketa digitala eta berrikuntza metodologikoa landu beharko dituela nabarmendu du. Ekitaldia Tafallako Antso III.a Handia BHIIn izan da, 50. urteurrena ospatzen duen ikastetxean.



Barkos Lehendakaria Antso III Handia BHIko ikaslegoari hitz egiten, Tafallan.

“Ikastetxeak proiektu parte-hartzailea, aktiboa, eta eleaniztuna du, eskaintza inklusiboa eta berritzailea, eta Nafarroako Gobernuak bultzatu nahi duen hezkuntza publikoko ereduarekin oso-osorik bat egiten duena”, azpimarratu du Lehendakariak.

Ikastetxera iritsi ondoren, Lehendakariak eta gainerako agintariak eraikin nagusiko instalazioak bisitatu dituzte, tartean 1. DBHko gelak eta Curriculum Bereziko Unitatearen gela nahiz Batxilergoko eraikin berria. Ikasturtea irekitzeko ekitaldia estalitako pistan egin da, eta 150 bat pertsona bildu dira, agintarien eta Institutuko eta beste ikastetxeetako arduradunen artean, Tafallako Antso III.a Handia BHIko ikasleez gain. Institutuko ikasleek osatutako Antso Erregea Koroak Nafarroako Ereserkia abestu ondoren, ikastetxeko zuzendariak, Alfonso Huartek, eta Tafallako alkateak, Arturo Goldaracenak, hitz egin dute. Ondoren, Barkos Lehendakariak Nafarroako armarría (markoan ipinita) eman dio ikastetxeko zuzendariari.

Barkos Lehendakariak zorionak eman dizkio Antso III.a Handia BHIri 50. urte betetzeagatik eta urte horietan guztietan garatu duen lanarengatik; era horretan, nabarmendu du ikasturte hau “funtsezkoa izango dela Hezkuntza Departamentuak legegintzaldiaren hasieratik landu dituen plan estrategiko eta programa askotarako”. Halaber, azpimarratu du aurten eraldaketa digitalari helduko zaiola, eta “hezkuntza publikoko 1. DBHko ikasle guztiek ordenagailu pertsonal eramangarria jasoko dutela”.



Institutuko ikasle eta abesbatzako kideak erakundeetako ordezkariekin taldeko argazkian.

Eraldaketa digitalerako eta hezkuntzaren berrikuntzarako egiten den bidean, Barkosek azpimarratu du “funtsezkoa dela irakasleen lankidetzaz”, eta, ildo horretan, esan du Antso III.a Handia BHIko irakasleek parte hartu dutela hizkuntza-programa (EOIDNarekin) bezalako proiektuetan, elkarbizitzako lan-taldeetan, ikastetxearen aldizkarian edo web gunearen garapenean, “guztiak ere eskola-komunitatearen bizitasunaren adibide”.

Horrez gain, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua Dibertsitatea Artatzeko Plan Estrategikoan egiten ari den lana nabarmendu du; izan ere, horren bitartez, desgaitasuna duten ikasle nafarren %90ak gela arruntetan ikasten du, Skolae baterako hezkuntzako programa landu da, eskola-jazarpenaren aurrean esku hartzeko eta prebenitzeko Laguntza programa eta gaitasun pedagogiko-didaktikoa hobetzeko programa ere bai. “Horien guztien helburua da ikasteko prozesuak egungo munduko premia aldakorretara egokitzea, ikuspegi inklusibo eta berdintasunezkoak”, eta “ildo horretan, hezkuntza publikoak aukera-berdintasuna bermatu behar duela” adierazi du.

Ikasturte honetan, Nafarroan, 98.500 ikasle hasi dira, eta “horiei kalitatezko hezkuntza bermatzeko betebeharra du Nafarroako Gobernuak ikuspegi komunitariorik, eta horretan familiek eta inguruneak funtsezko papera betetzen dute”, azpimarratu du Lehendakariak. Helburu horretarako, “eskola publikoak berrikusten ari gara, berrikuntzan, berdintasunean eta inklusioan oinarritutako hezkuntza nahi baitugu”.

Antso III.a Handia BHI

Tafallako Antso III.a Handia Bigarren Hezkuntzako Institutuan, Nafarroako Erdialdeko Bigarren Hezkuntzako Instituturik beteranoenean, Erdialdeko hainbat herritako 650 ikaslek ikasten dute; hala nola, Tafalla, Artaxoa, Larraga, Berbintzana, Miranda Arga, Mendigorria, Pitillas, Olite, Uxue eta Barasoain. Bete berri duen mende erdi honetan, institutuko geletatik 4.000 ikasle baino gehiago igaro dira jada

Galería de fotos



Barkos Lehendakaria agerraldiaren une batean.



Barkos Lehendakaria eta Institutuko zuzendaria gainontzeko ordezkariekin.



Bisitaren uneetariko bat.